

EXCERPTA

33. zenbakia

1989-otsaila

gaiak

orrialdeak

Greko-euskarazko gramatika-konposaketa.....645

Hesiodo-ren Teogonia.....646-647

S.Joan Krisostomo eta paganoen ohiturak
eta pentsakera.....648-649

Plinio Gaztea(eskutitzak).....650-651

Definitiones,etymologiae,explicationes,
e sancti Augustini scriptis depromptae.....652-656

Definitiones,etymologiae,explicationes
a sancti Jeronimi epistolis depromptae.....657-660

Grezia-ko Mitologia(barne orrietako
eraskina)

εξ-(bokale-aurrean: εν)

exargyró0=zilartu(zilar bihurtu)

exág0=irtenerazi,aitzinarazi.

exégeir0=iratzarri(atzarri).Soila eta konpo-
satua eraginkorra,bai euskaraz,bai
grekoz.

exekklEsiatz0=batzarrerazi.

Nikolas Ormaetxea

"Orixe"

1942

(jarraitzeko)

Η Σ Ι Ο Δ Ο Υ
Θ Ε Ο Γ Ο Ν Ι Α

- 326 Ἡ δ' ἄρα Φῶκι' ὀλοὴν τέκε Καδμείοισιν ἐλεθρον
 Ὄρθῳ ὑποδηθεῖσα Νεμειαῖόν τε λέοντα,
 τόν β' Ἡρῆ θρέψασα Διὸς κωδρῆ παράκοιτις
 γουνοῖσιν κατένασσε Νεμείης, πῆμ' ἀνθρώποις.
 Ἐνθ' ἄρ' ὁ οἰκείων ἐλεφαίρετο φύλ' ἀνθρώπων,
 κοιρανέων Τρητοῖο Νεμείης ἠδ' Ἀπέσαντος
 ἀλλὰ εἰς ἐδάμασσε βίης Ἡρακληείης.
- 333 Κητὸ δ' ὀπλότατον Φόρκυι φιλότῃτα μιγεῖσα
 γείνατο δεινὸν ὄφιν, ὃς ἐρεμνῆς κεύθεσι γαίης
 σπεύρησιν μεγάλης παγχρύσεια μῆλα φυλάσσει.
 Τοῦτο μὲν ἐκ Κητοῦς καὶ Φόρκυος γένος ἐστίν.
- 337 Τηθύς δ' Ὠκεανῷ Ποταμοῦς τέκε δινύγοντας,
 Νεῖλόν τ' Ἀλφειὸν τε καὶ Ἡριδανὸν βαθυδίνην
 Στρυμόνα Μαίανδρόν τε καὶ Ἴστρον καλλιρέεθρον
 Φᾶσιν τε Ῥήσόν τ' Ἀχελωῖόν τ' ἀργυροδίνην
 Νέσσον τε Ῥοδίον θ' Ἀλιάκμονά θ' Ἐπτάπορόν τε
 Γρήνικόν τε καὶ Αἰσηπον θεῖόν τε Σιμοῦντα
 Πηνειὸν τε καὶ Ἔρμον εὐρῆειτῃν τε Κάϊιον
 Σαγγάριόν τε μέγαν Δάδωνά τε Παρθένιον τε
 Εἰθηνόν τε καὶ Ἀρδησιον θεῖόν τε Σκάμανδρον.

Azkenik, Ortho-rekin etzanik Esphinge galgarria sortu zuen, Kadmeotarren kaltegilea; eta Nemea-ko lehoia, Hera-k, Zeus^{en} ezkontide ospetsuak, hazitakoa, geroago Nemea-ko zelaietan gizonen zigortzat utzitakoa. Bertan kokaturik giza-leinuen kaltetan ari zen, Nemea-ko edo Apesanto-ko Treto-n aginduz. Alabaina, Herakles kementsuaren indarrak menperatu zuen.

Keto-k Phorzis-ekin maitekiro elkaturik azken semea izan zuen, suge ikaragarria; beronek bere bihurtura handiekin urrezko sagarrak zaintzen ditu lur itzaltsuaren erraietan. Horrelakoxea da Ketos eta Phorzis-en azkazia.

Tethis-ek Okeano-rekin ibai zurrunbilotsuak sortu zituen: Nilo eta Alpheo eta zurrunbilo sakonak dituen Eridano; Estrimon, Menandro eta Istro, ur-behera ederrekoa; Phasi, Reso eta Akeloio zilarrezko zurrunbiloak dituen; Neso, Rodio, Haliakmon, Hektaporo, Greniko, Esepo eta Simon jainkotiarrak; Peneo, Hermo eta ur ederreko Kaiko; Sangario handia, Ladon, Partenio eta Eueno; Ardeskon eta Skamandro jainkotiarrak.

S. Joan Krisostomo

8. Πότε οὖν ἀκοῦσαι δυνήσῃ Παύλου; πότε αἰσθήσιν λαθεῖν τῶν πεπλημμελημένων, μεθύων αἶψα καὶ διηνεκῶς ἀπὸ τῆς θεωρίας ἐκείνης; Ὅτι γὰρ παραγέγονας ἐνταῦθα, οὐ θαυμαστὸν καὶ μέγα· μᾶλλον δὲ θαυμαστόν. Ἐνταῦθα μὲν γὰρ καὶ ἀπλῶς καὶ ἀφροσιούμενος παραγίνῃ· ἐκεῖ δὲ, μετὰ σπουδῆς καὶ δρόμου καὶ πολλῆς τῆς προθυμίας. Καὶ δῆλον ἐξ ὧν οἴκαδε φέρεις, ἐκεῖθεν ἀναχωρῶν. Καὶ γὰρ τὸν βόρβορον ἅπαντα τὸν ἐκχυθέντα ὑμῖν ἐκεῖ διὰ τῶν ῥημάτων, διὰ τῶν ῥόδων, διὰ τοῦ γέλωτος, εἰς τὴν οἰκίαν ἕκαστος συνάγοντες φέρετε· μᾶλλον δὲ οὐκ εἰς τὴν οἰκίαν μόνον, ἀλλὰ καὶ εἰς τὴν διάνοιαν ἕκαστος τὴν ἑαυτοῦ· καὶ τὰ μὲν οὐκ ἄξια τοῦ βδελύττεσθαι ἀποστρέφῃ, τὰ δὲ βδελυκτὰ οὐ μισεῖς, ἀλλὰ καὶ ἀγαπᾷς. Πολλοὶ γοῦν ἀπὸ μὲν τῶν τάφων ἐπανελλόντες ἐλούσαντο· ἀπὸ δὲ θεάτρων ἀναχωροῦντες οὐκ ἐστέναξαν, οὐδὲ ἐξέγεαν δακρύων πηγᾶς· καί-τοι γε ὁ μὲν νεκρὸς οὐκ ἀκίθαρτον· ἡ δὲ ἁμαρτία τοσαύτην ἐντίθησι κη-λίδα, ὡς μηδὲ μυρταῖς πηγαῖς ἐκκαθαῖραι ταύτην δύνασθαι, ἀλλὰ μόνοις δά-κρυσι καὶ ἔξομολογήσειν. Ἄλλ' οὐδεὶς ὁ αἰσθανόμενος τῆς κηλίδος ταύτης· Ἐπειδὴ γὰρ ἂν χρὴ οὐ φοβούμεθα, διὰ τοῦτο ἂν μὴ χρὴ δεδοίκα-μεν.

Noiz izango ote zara gai Paul entzuteko? Noiz ohartu-ko zara zeure bekatuez? Etenik gabe mozkorturik zabil-tza ikuskari horietan. Orain hemen (elizan) egotea, bada, ez da harritzeko adineko gauza handia. Edo bai, bada e-giazki harrigarria. Guztizko arinkeriaz bertoratu za-ra; hara (theatrorra), berriz, arduraz, lasterka eta oso gogotsu zoaz. Igarrian dago, handik irtenik, etxera da-ramatzazunetatik. Hango lokatz guztia, hitzen, abestien eta barreen bidez gaineratu zaizuena, bakoitzak bere baitan baturik etxera daramazute. Hobeki esanda, ez e-txera soilik, baizik eta bakoitzak bere gogo barnera. Iguingarri ez diren etatik aldendu egiten zara eta i-guingarri ez diezu gorrotorik; maitatu egiten ditu-zu, gainera. Era hontara, asko hilobietatik itzultzean garbitu egiten dira; baina theatrotik datozenean, ez damurik, ez negar-malkorik. Hildakoa ez da zikinkeria bat; bekatuak, ostera, halako lohia uzten du, mila itu-rri ez dira aski garbitzeko; malkoek eta aitorpenak soilik garbi dezakete. Hala ere, lohi hontaz inor oh-artu ez. Behar denagatik ez gara ikaratzen eta, behar ez denari diogu beldurra.

(Mateo Deunari buruzko Homiliak; XXXVII, 6)

PLINIO GAZTEA

C. PLINIUS SEPTICIO CLARO SVO S.

Heus tu, promittis ad cenam nec uenis! dicitur ius: ad assem impendium reddes nec id modicum. 2 Paratae erant lactucae, singulae, cochleae ternae, oua bina, halica cum mulso et niue (nam hanc quoque computabis, immo hanc in primis, quae perit in ferculo), oliuae, betacei, cucurbitae, bulbi, alia mille non minus lauta. Audisses comoedum uel lectorem uel lyristen uel, quae mea liberalitas, omnis. 3 At tu apud nescio quem ostrea, uulvas, echinos, Gaditanas maluisti.

Dabis poenas, non dico quas. Dure fecisti; inuidisti, nescio an tibi, certe mihi, sed tamen et tibi. Quantum nos luissemus, risissemus, studuissemus! 4 Potes apparatus cenare apud multos, nusquam hilarius, simplicius, incautius. In summa experire et, nisi postea te aliis potius excusaueris, mihi semper excusa. Vale.

K. Plinio-k Septizio Klaro
adiskideari osasuna.

Zu, zer? Afaritara etorriko zarela eta gero agertu ez! Horra epaia: azkenengo txanponeraino ordainduko didazu egindako gastua, ez, gero, txikia. Dena zegoen prest: uhaza bana, barraskilo samurrak, bina arraultze, ardo-eztizko edaria, elurra ipinita, (berau ere ordaindu beharko, eta lehenena, gainera, gurditxoan eraman bitarte an desegiten bait da), olibak, zerbak, kalabazak, kipulak, eta beste ainitz jaki bikain. Antzezlaria entzungo zenukeen, irakurlea edo lira-jolea, edo nire esku zabalak eskainitakoak oro. Zuk, berriz, ez dakit norenean, ostrak, urdeme-sabelkiak, itsas-lakatzak eta Gadestarrak gurago izan dituzu. Hartuko duzu zigorra, ez diot zein. Gaizki egin duzu; zeuri ez dakit, baina niri bai, ezetza eman didazu, eta zuri ere bai agian. Hango barrak, kontu-kontari, eta zenbat solasaldi egingo genukeen! Beste askoren etxean, bai, afari ugariagoak izango dituzu, baina gurea bezalako poza, bakuntasuna eta lasaitasuna, nekez. Proba ezazu eta gero, besteengana ez joateko aitzakiarik ez baduzu, eman niri beti ezetza. Agur.

-
- Afaria erromatarrentzat jatordurik nagusia zen.
 - Elurra, ardoa hotz mantentzeko.
 - Ferculum: jatekoak eroateko azpilak, gurditxoak edo.
 - Gades-ko dantzari ospetsuak, jatorduan alaikiro ari izaten zirenak.

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI AUGUSTINI SCRIPTIS DE PROMPTAE.

175

BEKATUA(umeengan) : "Ego ipsa verba graeca quae a Ioanne dicta sunt ponam: "Διὰ τοῦτο καὶ τὰ παιδία βαπτίζομεν, καὶ τοὶ ἁμαρτήματα οὐκ ἔχοντα", quod est latine, "Ideo et infantes baptizamus, quamvis peccata non habentes". Vides certe non ab eo dictum esse "parvulos non coinquinosos esse peccato", sive "peccatis"; sed, non habere peccata"; intellege propria, et nulla contentio est.

("Contra Iulianum libri sex", cap. VI, 22)

Nik Ioannes-ek ipinitako grekozko berbak eurak ipiniko ditut: "Διὰ τοῦτο καὶ παιδία βαπτίζομεν, καὶ τοὶ ἁμαρτήματα οὐκ ἔχοντα", latinez honetara "horregatik bataiatzen ditugu umeak, nahiz eta bekaturik eduki ez". Argi dakusazu hark ez zuela esan "haurrak ez daudela bekaturik, edo bekaturik, lohiturik", baizik eta "ez dute la bekaturik"; zuk ezar "bereak" eta ez dago auzirik.

176

BEKATUA(jatorrizko) : "Verba quippe euis non interpretata sic leguntur in graeco: "Ἐρχεται ἄπὸς ὁ Χριστὸς εὐρεν ἡμῶν χειρόγραφον πατρῶν ὃ τι ἔγραφεν ὁ Ἄδαμ. Ἐκεῖνος τὴν ἀρχὴν εἰσήγαγεν τοῦ χρείου, ἡμεῖς τὸν δανεισμόν ἠῤῥήσαμεν ταῖς μεταγενεστέραις ἁμαρτίαις",

Quae verbum e verbo interpretata sic se habent: "Venit semel Christus, invenit nostrum chirographum paternum, quod scripsit Adam. Ille initium induxit debiti, nos

KIKLOPEAK
Κύκλωπες

Antxinako mitographoek Kiklopeak hiru taldetan banatzen zituzten: "uraniarrak", Urano eta Gearen semeak; "siziliarrak", Poliphemoaren lagunak, Odisearen ageri direnak; eta Kiklope eraikileak.

Kiklope uraniarrak lehenengo belaunaldi jainkotiarrenak dira, Diganteenak, alegia: begi bakarra dute beko ki erdian eta indartsuak eta esku trebeak dira oso. Hiru dira: Brontes, Esterapes (edo Asterapes) eta Arges; euren izenek beste hauek gogoratzen dizkigute: Ostotsa, Tximistargia eta Oineztarriarenak. Lehenengo, Uranok kateatuak, Krono-k askatu zituen; beronek lotu zituen berriro Tartaroan, harik eta Zeus-ek betiko askatu arte, gaztigua hartu bait zuen ez zuela garaipenik lortuko euren laguntzarik gabe. Orduantxe eman zizkieten Ostotsa, Tximistargia eta Oineztarria. Hades-i, ikustezina egiten zuen buru-oskola eman zioten, Posidon-i hiruortzekoa. Izkilu horiekin jainko olinpotarrek Titanak azpiratu zituzten, Tartaro-ra jaurtikiz. Elezaharretan Kiklopeak jainkoaren oineztarriaren egileak izaten jarraitzen dute. Horrelako lanbidea ze-

la eta, Apolo haserretu egin zitzaien, Asklepio bere semea Zeus-ek jota utzi zuen hildakoak berbiztu zituela ko. Zeus-engan apentza hartu ezinik, Apolo-k Kiklopeak hil zituen-edo haien semeak, tradizioren batek dioenez. Hori zela eta, zigortzat, Admeto-ren jopua bilakatu zen. Ageri denez, kondaira honen arauera, Kiklopeak hilkortzat hartzen dira eta ez jainkotzat.

Poesi alexandrinoan, Kiklopeak bigarren mailako genioak bezala agertzen dira, jainkoen izkilu guztien antolatzaile eta egile. Esaterako, Apolo eta Artemis bere arrebaren uztaia eta geziak egiten dituzte, Hephesto jainko errementaria zuzendari. Uharte eolioetan edo Sizilian bizi dira; bertan egiten dituzte errementarilanak lurpean eta han ari dira lanean zarata handia eginez. Auspoaren puzkada eta ingudeen zarataren oihartzuna Sizilia-ko sumendien barruan entzuten da. Euren lantegiko suak halako islada gorriska bat hedatzen du Etna-ren tontorrean. Sumendiekin loturiko elezahar haetan, Kiklopeak sarri bat egiten dira menditzarren azpian eta izualdiekin herrialdea ikaratzen duten Digan teekin.

Odisean Kiklopeak izaki basatitzarrak legez agertzen dira, begibakarrak, oso indartsuak eta Italia-ko kostal

dean bizi direnak (zelai Flegreoetan, Napoles-etik hurr) Ahari hazkuntzan dihardute eta ahari-taldeak dituzte ondasun bakartzat. Antropophagoak dira, ardorik edan ez, mahatsik landu ere ez dute egiten. Haitzuloetan bizi dira eta ez dute ikasi hirietan biltzen. Kiklope hauen zertzelada batzuren arauera, satiroen antza badute, apur bat, eta batzutan satiroak eta Kiklopeak bat dira.

Lizia-tik etorri omen ziren Kiklopeak eta Grezian, Sizilian eta abarretan ikusten diren Historia-aurreko eraikuntza guztiak Kiklopeek eginak omen ziren: bloke handiak, pisuz eta kaizuz giza-indarren gainetikoak diruditelako. Kasu hontan ez dira Urano-ren semeak, herri oso bat, legendazko heroien zerbitzuan jarriak bizi. Adibidez, Preto Argos gotorleku bihurtzeko eta abar. Kirogastereak ezizen berezia ematen zaie, hau da, "sabel besodunak". Honek Hekatonkiroak dakartza burura, berrehun besodun diganteak, mitologia hesiodotarrean hiru Kiklope uraniarren anaiak, alegia.

Prominet in pontum cuneatus acumine longo
collis, utrumque latus circumfluit aequoris unda.
Huc ferus ascendit Cyclops mediusque resedit;
lanigerae pecudes nullo ducente secutae.
Cui postquam pinus, baculi quae praebuit usum,
ante pedes posita est antennis apta ferendis
sumptaque harundinibus compacta est fistula centum,
senserunt toti pastoria sibila montes,
senserunt undae. Latitans ego rupe meique
Acidus in gremio residens procul auribus hausi
talìa dicta meis auditaque uerba notauì:

(P.Ovidi Nasonis "Metamorphoseon" lib.XIII)

Hic me, dum trepidi crudelia limina linqunt, 614
Immemores socii a vasto Cyclopi in antro
Deseruere. Domus sanie dapibusque cruentis*,
Intus opaca, ingens*. Ipse arduus altaque pulsat
Sidera (di, talem terris avertite pestem!), 620
Nec visu facilis* nec dictu affabilis ulli.

(P.Virgilii Maronis "Aeneidos" lib.III)

Fervet opus redolentque thymo fragrantia mella:
Ac veluti lentis Cyclopes fulmina massis* 170
Gum properant?, alii taurinis follibus auras
Accipiunt redduntque, alii stridentia tingunt
Aera lacu*; gemit impositis incedibus Aetna;
Illi* inter sese magna vi braccia tollunt
In numerum, versantque tenaci forcipe ferrum: 175

(P.Virgilii Maronis "Georgicon" lib.IV)

780

785

fenus auximus posterioribus peccatis". Numquid conten-
tus fuit dicere: "paternum chirographum"; nisi adderet:
"nostrum"? Ut sciremus, antequam fenus peccatis nostris
posterioribus augeremus, iam illius chirographi pater-
ni ad nos debitum pertinere.
(idem, ibidem, lib. I, cap. VI, 26)

Beraren hitzak, itzuli gabe, honela datoz grekoz: "Ερ-
χεται ἄποσ ὁ Χριστὸς εὐρεν ἡμῶν χειρόγραφον πατρῶν
ὁ τι ἔγραφεν ὁ Ἄδαμ. Ἐκεῖνοσ τὴν ἀρχὴν εἰσήγαγεν
τοῦ χρείουσ, ἡμεῖσ τὸν δανεισμὸν ἠύξῆσαμεν ταῖσ μετα-
γενεστέραισ ἀμαρτίαισ.

Hitzez hitz itzulirik, honetara da? "Kristo batean eto-
rri eta gure aitagandiko agiria aurkitu zuen, Adam-ek
idatzia. Hark eman zion hasiera zorrari, eta guk zorra
areagotu dugu gure ondorengo bekatuez". "Aitagandiko a-
giria" esanez nahikotu al zen, ala gero gaineratu: "geu-
rea"? Hain zuzen ere, jakitun ipintzeko geure geroko be-
katuez zorra handiagotu baino lehen, aitaren zor-agiri
hura guri zegokigula.

177

GERRIPEKOAK: "Quid enim tam in promptu est, quam su-
ccintoriis, vel praecintoriis, quae graece περιζώματα
nuncupantur, lumbos hominum contegi vel praecingi, quas
vulgus etiam munituras vocat?".
(idem, ibidem, lib. II, cap. VI, 16)

Zer egokiagorik, gerripekoez, grekoz περιζώματα esan-
dakoez gizonen gerria estali edo lotzea baino? Herri
xeheak zankartekoak esaten die.

178

ERGELAK : "Quis autem nesciat, quos vulgo moriones vocant, natura ita fatuos, ut quibusdam eorum pene sensus pecorum conferatur?".

(idem, ibidem, lib. 3; cap. IV, 10)

Nork ez daki, herritarrek ergelak deitutakoak, batzuk hain zentzungabeak direla, euretariko batzuri abereena bezalako zentzuna ere ez zaiela eman?

179

SENDAGAIA : "Remedium quippe a medendo, id est a medicando, nomen accepit".

(idem, ibidem, lib. 3, cap. XXI, 42)

Sendagaia, bada, sendatutik dator, hau da, sendotasuna bilatzetik.

180

MORALA-ETHIKA : "Verum, obsecro te, si philosophos nobis antepone gestiebas, cur non potius eos commemorasti, qui de moribus, quae pars ab eis philosophiae vocatur ethica, quam nos moralem dicimus, sollertissime disputarunt?".

(idem, ibidem, lib. 4, cap. XV, 76)

Esan, arren, gu baino gehiago filosofoak nahi bazenituen, zergatik ez dituzu ekarri gogora, ohiturez hain ederki aritu direnak? Philosophiaren atal hori haiek ethikatzat hartzen dute eta guk moraltzat.

- grekoz: ἔθος εὐς τό }
latinez: mos, moris } =ohitura

181

LOTSARIAK : "Inhonestas dixit Apostolus, sed nonnulli interpretes, in quibus et iste est, quantum arbitror, quem legisti, credo verecundati verecundiora dixerunt, quae ille dixit inhonestas: quod probatur ex verbis in ipso codice scriptis, unde ista verba apostolica transtulisti. Quod enim abs te positum est verecundiora, in graeco legitur ἀσχήμονα. Quod autem sequitur, maiorem honestatem habent, in graeco est εὐσχήμοσύνην, quod integre interpretatum est, honestatem. Unde apparet illa quae ἀσχήμονα dicta sunt, inhonestas latine appellari. Postremo quod adiunctum est, quae autem sunt honestas nostra, graecus habet εὐσχήμονα. Unde manifestum est illa quae ἀσχήμονα dicta sunt, inhonestas esse."

("Contra Iulianum libri sex"; lib. 4, cap. XVI, 80)

Lotsariak esan zuen Apostoluak. Hala ere, itzultzaile batzuk, eta euren artean zuk irakurri duzun horrek, us te dut, herabez edo, lotsorak esan zuten, hark lotsariak dakarren lekuan: Apostoluaren berba hauek hartu dituzun kodizeko berbak eurak aztertuz probatzen da hau. Zuk lotsorak itzuli duzuna grekoz ἀσχήμονα da. Greko datorrena, maiorem honestatem habent, grekoz εὐσχήμοσύνην da, eta zuzen itzulia lotsa. Hortik ateratzen da ἀσχήμονα esandakoak, latinez lotsariak direla. Azkenik, ondoren datorrena, quae autem sunt honestas nostra, grekoz εὐσχήμονα dakar. Beraz, ἀσχήμονα esandakoak lotsariak dira.

Grekozko originalak dakarren desberdintasuna azpimarrazteko latinez, HONESTA, INHONESTA, VERECUNDIORA hitzen bidez egiten du. Argi dago INHONESTA-tik VERECUNDIORA-ra dagoen tartea; euphemismoz edo esanak. Euskaraz, ostera, INHONESTA itzultzeko hitz gogorregia erabili behar, beharbada; eta hizkuntzaren jokoa zaindu baina irakurlea harri eta zur eginda geratzeko arriskutan. Guk egiten ditugun larregikeriak INHONESTA izan daitezke; baina jaiotzez Jaungoikoak hala egin gaituelako gure gorputzatal horri INHONESTA esatea lartxo ote den nago. Horregatik, nolabait bereizteko, lotsor-lotsari kontra jarri dut, badakit leku batzuetan lotsor eta lotsari bat direla; baina lotsor-ek lotsari-k baino zentzun zabalagoa du eta pertsona on hutsagatik ere esan daiteke lotsorra dela eta lotsari ez. Beraz, bego nire itzulpenean lotsari INHONESTA adierazteko (gorputzarenak, kasu hontan) eta lotsor VERECUNDIORA (kasu berdinean) adierazteko.

(jarraitzeko)

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI JERONIMI EPISTOLIS DE PROMPTAE.

24 **JAKINTZA**: "Sed ne videremur aliquid praeterisse eorum, quas Iudaei vocant δευτερώσεις et in quibus universam scientiam ponunt, nunc breviter aliud adtingimus..."

("Ad Damasum" 18B, 4)

Baina, Judeguk δευτερώσεις esaten dituztenak, haietan ipintzen bait dute jakintza guztia, alde batera uzten ditugulakorik inork uste ez dezan, orain beste zer bait laburkiro ikustera goaz...

25 **APOSTOLUA**: "Unde propheta purgatus a vitiis ausus est dicere: "ecce ego sum", licet in latinis codicibus propter interpretum varietatem "sum" non sit adpositum. Quidam observandum putant ad quos prophetas "mittentis" aut "missi" sermo dicatur, quod est Grace "apostolus".

(18B "Ad Damasum", 5)

Beraz, iragarlea, bere akats guztietatik garbiturik, hau esatera ausartu zen: "hara, ni naiz", nahiz eta latinezko kodizeetan, itzultzaile asko izan dira eta, "sum" hori agertu ez. Batzuk uste dutenez ohartu behar da zeintzu iragarleri buruz esaten den "mittentis" eta zeintzuri buruz "missi", grekoz "apostolua" esaten dena.

26 **SILAS** : "Et quia semel ad tractatum istius vocabuli venimus, sciendum "Silam", collegam Pauli, lingua hebraea "apostolum" dici, qui cum eo nonnullas epistulas scribit; et vitiose "Silvanum" legitur pro "Sila", cum Silvanum in apostolorum Actibus non legamus".

(18B "Ad Damasum", 5)

Eta behin berba hau ikutuz gero, jakin behar da "Silas", Paul-en laguna, berarekin batera eskutitz batzu egiten dituen, hizkuntza hebreoan "apostolua" dela; horregatik oker da Sila-ren ordean Silvano irakurtzea, Apostoluen Ekintzetan ez baita Silvanorik irakurtzen

27 **HOSANNA** : "Multi super hoc sermone diversa finxerunt, e quibus noster Hilarius in commentariis Mathei ita posuit: "'osanna' Hebraico sermone significatur redemptio domus David". Primum "redemptio" lingua Hebraea pheduth interpretatur, deinde "domus" beth, "David" vero in hoc loco non esse insertum omnibus patet. Alii opinati sunt osanna "gloriam" dici - porro "gloria" chabod appellatur -, nonnulli "gratiam", cum "gratia" thoda sive anna nuncupetur!

("Ad Damasum", 20, 1)

Berba hau dela eta, askok ainitz gauza asmatu zuten. Bat gure Hilario, Mateo-ren iruzkinetan honela jarri zuena: "'osanna' hebreoz 'David-en etxearen Erosketa' esaten da. Lehenengo, 'erosketa' hebreoz pheduth da; bigarren, 'etxea' beth; eta 'David' pasarte hontan ez dela agertzen denok dakite. Beste batzuren eritziz osanna "aintza" da - baina "aintza" chabod da -; eta beste batzuk uste dutenez, "grazia", baina "grazia" thoda edo anna esaten da.

28 **HOSANNA** : "Et de eo quidem quod facile exprimi poterat: "benedictus qui venit in nomine Domini", omnium evangelistarum scriptura consentit; de verbo vero "osianna", quia in Graecum non poterant transferre sermonem, sicuti et in "alleluia" et in "amen" et in plerisque factum videmus, ipsum hebraeum posuerunt dicentes "osianna". Lucas igitur, qui inter omnes evangelistas graeci sermonis eruditissimus fuit, quippe qui ut medicus et qui in Graecis Evangelium scripsisset, quia se vidit proprietatem sermonis transferre non posse, melius arbitratus est tacere quam id ponere quod legenti faceret quaestionem",
 ("Ad Damasum", 20, 4)

Erraz azal litekeena, "bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena", hori ebangelari guztiek berdin idatzi zuten. "Osianna" berba, aldiz, grekora ezin zelako itzuli, "alleluia", "amen" eta beste ainitzetan dakusagunez, hebreozkoa bera ipini zuten "osianna" esanez. Lukas, berriz, ebangelari guztien artean grekoa ongien ezagutzen zuena, sendagilea eta grekoentzat ebangelioaren idazlea izanik, hitza egokiro ezin zezakeela itzuli ikusirik, bestelako eritzi az baliatu zen: nahiago izan zuen isildu, alegia, irakurlearentzatko buruhausterik ipini baino.

(jarraitzeko)

— URREZKO HITZAK —

Μηδὲ ἐπειδὴ τὸ σῶμά σου μὴ
μετεστη πρὸς τὸν οὐρανὸν,
νομίσης ἔχειν τι κοινὸν πρὸς
τὴν γῆν. Τὴν γὰρ κεφαλὴν ἄνω
ἔχεις καθημένην.

Eta oraindik zure gorputza ze-
ruan ezarririk ez dagoelako,
ez uste lurrarekiko ezein lo-
tura duzunik. Burua, bada, han
goian bait dadukazu jarririk.

(J. Krisostomo deuna: "Mateo de-
unari buruzko homiliak", XII-4)